

## Literatura ▸ LIBURUAK

## Istorio baten historia

MIKEL AYERBE

**P**etrolio isuri batek kutsatutako kaioa Zorbas izeneko katu handi, beltz eta potoloaren etxeko balkoira iristen da. Larriki zaurituta, azken ahailegin batez arrautza bat errutea lortuko du. Hil aurretik, ordea, katuari hiru promesa eskatzen dizkio: lehena, arrautza ez jatea; bigarrena, kaio-kumea hazi eta hezitzea eta hirugarrena, hegan egiten irakastea. Hortik aurrera, hainbat arriskuri aurre eginez, Zorbas katua emandako hitza betetzen saiatuko da, bere lagun Idazkario, Colonello, Orojakile eta Haizalde katuekin batera.

Izan ere, 1996an gaztelaraz argitaraturiko Luis Sepulvedaren *Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katua*ren liburua fabula moderno baten adibide argia da. Gai honen inguruan Manu Lopez Gasenik *Literaturak umeei begiratu zienean* saiakeran aipatzen duen banaketa kontuan hartuta, alegia honetan gizakien rolak jokatzetik dituzten animaliak aurkeztzen dira. Mariasun Landaren *Elefante txori bihotza* liburu bikainean bezala, ipuin honetan katu bakoitzak bere bihotza eta

izaera dituelako: Zorbas katua arduratsua eta ausarta da, diziplina eta erabakiak hartzeko gaitasuna dira Colonello katua eta ezaugarriak, Orojakile katua jakintza entziklopedikoaren jabe da eta horrela beste katuekin ere. Adoptaturiko kaio-kumeak berriz, guztien laguntza beharko du kaipei hegan egitea dagokiela ikasteko.

Ezagunak dira animalien artean gertatzen diren adopzio kasu bitxiak. Txerri batek bere kumeztat hartu eta txerrikumeen artean hezia izan den zakur bat ikusi nuen aurreko astean telebistan. Hor dugu, zineman arrakasta izan zuen Babe txerritxoaren kasua ere, artzain-txakurrek hazi eta artzain-txakur sentitzen zen txerrikumearen istorioa. Ezin ahaztu ahaiteen artean itsusi jaiotako zisnearen kontakizun klasikoak. Eta alegia hauetan bezala, katu izan zitekeen Zorion kaio-kumeak kaio bat dela ikasi beharko du. Atxagaren Xola zakurrak basurde edo lehoiekiko zituen kezka gogora ekarri, bi hego zertarako dituen irakatsi beharko dio katua hegaztiari.

Zortzi eta ehun urte bitarteko gazteentzako kontakizuna omen dugu Jesus Mari Mendizabal Bi-



■ **'Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katua'**  
Egilea: Luis Sepulveda. Itzultzailea: Jesus Mari Mendizabal 'Bizargorri'.

Argitaletxea: Alberdania. Urtea: 2007.

zargorri-k euskaratu berri duen fabula. Eskura dudan gaztelarazko bertsioren muga laurogeita zortzi urtetan ipintzen da. Sepulvedaren ipuin honetan oinarritutako *Antzeta eta katua* animazio-filmak, berriz, zortzi urteko muga hori ere

zailtzen jartzen du, filma txikia goentzat ere gozagarri den neurrian. Izatez, oinarrian istorio sinple bat dagoelako eta istorio hori kontatzeko moduak, ilustrazioen aukeraketak, edizio motak edo estiloak, nahi eta nahi ez, irakurketa aukerak eta irakurle motak baldintzatzen dituelako.

Euskarazko edizioaren kasuan, beste behin ere, Antton Olariagaren ilustrazioak azpimarratu behar dira. Irakurketa maila anitzak marrazkien bidez zoragarri irudikatzen ditu, kapitulu bakoitzeko aurrerapena eskaintzeaz gain. Eta baliteke ni bezalako irakurle eta ilustraziozale bat jatorrizko bertsioren Miles Hymanek tarteka eskaintzen zituen orrialde osoko marrazkien irrikiz gelditzea ere (Olariagak eskuz eginiko marrazki gehiago eta handiagoen irrikiz, noski).

Itzulpenari dagokionez, aitortu behar dut *Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katua*ren liburua gorabehera batzuk badituela. Itzulpen estratategia batzuk oso egokiak direla deritzot (pertsonaien izenak, «miaukatu» bezalako esarak...), baina beste zenbait karranka egiten dute. Irakurketa oztopatzen duten esaldi eta esamoldeez ari naiz, eta tamalez, adibide bat baino gehiago aurkitu ditut, zuzenak izango diren arren, desegokiak iruditu zaizkidanak.

>> mayerbe@berria.info



■ **'Maiatz, 45. zenbakia'**

Argitaratzailea: Maiatz.

Data: 2007ko uda.

Aldizkariaren 25. urteurrena oroitzeko du *Maiatz* aldizkariaren 45. zenbakia lehen orrialdeetan, idazle askoren testuekin: Lucien Etxezaharreta, Jose Angel Irigarai, Itxaro Borda, Eñaut Etxamendi, Piarres Aintziart, Auxtin Zamora, Txema Larrea, Itziar Madina, Nora Arbelbide, Antton Luku, Maite Gonzalez Esnal eta Mattin Irigoien. Eta horretaz gain, beste-lako idazlan ugari ere badu.



■ **'8 olivetti poetiko / Mundoposki, erreboltaren ziaboga'**

Egilea: FTI Antzerkiola Imaginarioa.

Argitaratzailea: Artezblai. Urtea: 2007.

Antzerkiola Imaginarioa konpainiak oholtzara eramandako lau antzerki lanetako gidioak argitaratu ditu Artezblai, bi liburutan. Bi liburuek hitzaurre bera dute, Antzerkiola Imaginarioak sinatua. Hitzaurreari «agur usain» hartzen diotela diote hasieran, baina amaieran agintzen dute «heriotza-oren ostean» ere «han» izango direla.



■ **'Jesus eta emakumea'**

Egilea: Jose Antonio Pagola.

Argitaratzailea: Uribarriko Andra Mari

Eliza. Urtea: 2007.

Hemen erlijio gogoetarako aldiizkariaren laguntzaz egindako euskarazko itzulpenari esker, Jose Antonio Pagolaren *Jesus eta emakumea* artikulu hau liburuxka moduan eman du argitara Durangoko Uribarriko Andra mari Elizak. Emakumeari buruz historian izan diren hainbat ikuspuntu jasotzen ditu, Jesukristorena bereziki.

## ■ Haur eta gazte literatura

## Jenio bizia, abentura ziurra

Abentura ederrak bizitzeko aukerak ematen ditu bai itsasoak bai hondartzak. Itsasoko urarekin jolastea gozagarria bezain beldurgarria izan daiteke, eta horrexegatik da erakargarri. Itsasoan haur guztiek bizi dituzte abentura gogoangarriak, eta guraso ia guztiek bizi dituzte une larriak haurren segurtasunak kezkatutik. Itsasoaren indarra handia baita. Olatuen antzera, orain aurrera, orain atzera, orain indar handiz, orain xumeago, hondartzako betiko gertakizun bat kontatzen digu idazleak. Ahoz gora irakurtzeko egokiagoa da Lola txikia protagonista duen eritimo handiko istorio hau. Eta Lola ez dela hain txikia eta itsasoa bera bezala hazi egiten dela ikusiko du irakurleak. Hainbeste, gurasoak ulertzeraino. Ipuinaren amaiera beharrezkoa da bai haurrek bai gurasoek hondartzan nola jokatu ikas dezaten. Marrazkiek bat egiten dute kontakizunaren tonuarekin, eta koloreen nahiz proportzio diferentien erabilerekin ongi islatzen dute pasarte bakoitzaren arima.



■ **'Jenio gaiztoa'**  
Egilea: Pello Añorga. Ilustrazioak: Jokin Mitxelena. Argitaletxea: Aizkorri. Adina: 5 urtetik aurrera.



■ **'Punpuilaren bidaia'**  
Egilea: Pako Sagarzazu. Itzultzailea: Joxan Ormazabal. Ilustratzailea: Iraia Okina. Argitaletxea: Elkar. Adina: Lehen irakurleak.



■ **'Babelgo txotxongilolaria'**  
Egilea: Carmen Marrero. Ilustratzailea: Pablo Zerdia. Itzultzailea: Karlos Zabala. Argitaletxea: Saure.

INAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

## Segi eta segi

Noraino helduko ote da? Zenbat iraungo du? Xaboi burbuila baten patuari buruzko galdera logikoak dira. Edozein haurren geroari buruzkoak ere bai. Amona Lutxik biloba Maialeni ematen dion erantzuna ere oso logikoa da: «Ez, maitia, ez. Ez da itzuliko». Gutxiart hitz egiten zaie haurrei (nahiz helduei), ordea, halako gardentasunez. Ez hitza txarra balitz bezala, maitia hitzaren indarra eta babesa estali eta gutxituko balu bezala. Eta *Punpuilaren bidaia* maitasun handiko ipuina da. Eta irudimen handikoa. Eta ilustrazio dotorekoa, burbuila bera bezalakoak, gardenak eta biribilak. Eta Gipuzkoako kostaldeko oso. Eta euskaldunena erabat. Besteak beste, Murtiku, Orío, Zumaia herriak ageri dira, eta, Landa, Lujanbio, Eguzkitze eta antzeko lagunak ageri dira, balizko herrialde berri batean, non angelak janez zoriontsu bizi diren bertako bizilagunak. Ustez. Astea hasterekin batera burbuila leheritu eta errealtatea agertzen baita berriro. Eta berriro ere, beste burbula bati bizia emateko aukera dago. Behin eta berriz.

## Aniztasunaren sorlekuetan barrena

Liburuzaila da *Babelgo txotxongilolaria*. Zaila bezain interesgarria. Iluna da, istorioa korapilotsua da, eta irakurleari arreta osoa eskatzen dio. Hala ere, behin istorioaren pulstua hartuta, liburua bukatu arteko bakerik ez du izango irakurleak. Ez da istorio atsegina irakurtzeko, egungo mundu globalizatuaren uniformetasunaren kontrako aldarria baita, eta beraz, egoera gatazka-tsua du gertaleku. Finean, irakurleari lana ematen dion liburua da, irakurtzen ohitua daudenentzat egokia. Hala ere, istorioaren konplexutasunak lana eskatzea ona da. Ez, ordea, liburuaren formatuak hori eragitea. Letra tipoa ez da egokia, orrialde batean sartzen den hizki kopurua handia ere ez, eta zutabeen antolaketak ere zaildu egiten du irakurketa. Marrazki adierazkorrek ematen dute atseden pixka bat. Agian, marrazki gehiagok lagunduko lukete istorioari hobeto kasu egiten.